

B15

Monesterio santu devotoa...

Poema honek aldika itxura fragmentarioa hartu arren, metrikak bermatzen du guztiaren batasuna: ABB : CDD : EFF errima duten tertzeto endekasilaboak dira. Ahapaldi mota hau aurkitu dugu B2, B3, B4 eta B17 poemetan ere.

Poemak hainbat orrialdetako zuriuneak bete ditu: 1180v, 1181r, 1181v, 1182r, 1182v, 1185v. Gainera, tintak eta idazmoldeak erakusten dutenaren arabera, esku bakar batek hainbat idatzalditan idatzi ditu; nabarmena da, gutxienez, multzo hauen arteko aldea: 1) 10-12, 19-21, 16-18 eta 22-24 bertso-lerroak (hurrenkera horretan). 2) 1-9, 13-15, 25-33. 3) 34-66. 4) 67-75. 5) 76-93. 6) 94-105. Azkenean, arabiar zifraz zenbatu ditu guztiak (22-24 bertso-lerroak kenduta). Guk ere zenbaki horiek ezarri duten hurrenkeran antolatu ditugu, eta hala eskuizkribuko *dispositio*ak nola poemaren argudio-diskurtsoak iradokitzen duten lekuan kokatu ditugu 22-24 lerroak. Azkenik, ahapaldi guztien ezkerrean (orain ere 22-24 bertso-lerroetan izan ezik) marra diagonal bat dago, ahapaldiak tatxatuz edo.

Moja baten hitzak dira 1-87 bertso-lerroetakoak, poemaren fikzioan behintzat komentuko kide guztien aurrean (gure ustez Barriako lekaide zistertarren komentuan) esateko idatziak, eta egilearen erantzuna 88-93 bertso-lerroak.

Lehenengo hitzak aurkezpenerako dira: monasterioari (1-9), komentuko abadesari (10-15) eta komentuko kideei (13-14) zuzenduak dira lehenengo lerroak, eta, *captatio benevolentiae* gisakoa amaitzeko, bere burua aurkezten du 16-24 lerroetan.

Gero (25-87), orohar klausurako lekaideen bizitza garratzari buruzko deitorea dator, eta bereziki bera bezala gogoz kontra, senitartekoek behartuta dagoen mojaren deiadarra: senitartekoek behartu dute diruagatik moja sartzen, eta ez du askatasunik, ez maitasunerako ez bestetarako. Gogoz kontrako mojarena gai ezaguna da literatura guztietan, eta, kasu honetan, gaitz berezi bat gehitzen zaie mojaren atsekabeei: komenturik komentu dabilen fraile sabeltzain apetatsua (76-93).

Azkenik, egilearen ahotan ipini diren lerroetan (88-93), barrutegiko bizitzaren garratzasuna onartu ondoren, esaten du komentura borondatez joan denak ez duela kexatzeko eskubiderik.

Jesús Moyak (2010: 171-189) komentuetan ohikoa zen *de culpis* kapituluaren parodia gisa ulertzen du poema osoa, eta *melancholia monialium* gaixotasunaren adibide gisa aurkezten du lekaidea. Gogoratu behar da *de culpis* saioan komentukide guztien aurrean aitortzen dituela lekaideak bere huts-egiteak eta ama-abadesak erantzuten diola (eta, behar izanez gero, zigorra ezartzen diola).

Mojaren hitzen inspirazio nagusia B7 *Maior que mi sufrimiento* gaztelaniazko poema ezaguna da; are gehiago, Lazarragaren B15 poemako bertso-lerro batzuk beste hartako bertso-lerroen itzulpen edo egokitzapenak dira:

B7: 4-5 ver que en descontentamiento se pasan mis dulces años!	B15: 52-53 Contentu baga dacust ditudala neure urte dulceac castaetan,
B7: 7 clause sunt undique porte.	B15: 55-56 Isi jaçun, bada, seculareco carcel gogor onetaco ateaç;
B7: 23-24 ¡Desbenturada de mí! De libre madre nascí:	B15: 58-59 Ama libreaganic jaio ninçan dicharic ez nebenau alabea;
B7: 31-35 Yo quedé monja metida, inocente de mi daño hasta después de crescida, que el dolor de la herida se me aquexó del engaño.	B15: 49-50 Gaztea sartu ninçan, sentiçaca andi arçaita neben engañua;
B7: 61-63 ¿Qué diré de las pasiones y congoxas muy continuas, pesadunbres a montones [...]?	B15: 34-36 Cegaiti monjea iñoç eztago baice au edo ori pensaetan, beti bere coitaen arilquetan.
B7: 80 quem pro nunmis bendideru[n]t	B15: 60 dirurren saldu ninçan esclabea.
B7: 93-95 el cuidado enamorado, quanto menos lo he probado, más dulce se me figura.	B15: 64-66 Amore dulcearen ardurea ceinbat dodan probadu guchiago, ainbat irudicen jat dulceago.
B7: 98-99 Con mil ansias con que ando,	B15: 61-62 Neure araguioc dacustanean

mis manos en mí tocando	cein çarden direan escuchoetan,
116-117 [Lazarragak ez ditu bildu]	B15: 40-42
Vos habetis libertatem	Ene senideac libre daoça,
ego vim patior hic fortem,	gozacen davela libertadea;
	ni nago catigu subjetadea

<1180v> Monesterio¹ santu devotoa,
Jaunaren graziaz eben² jarria,
ese prencipala³ eta barria.⁴

Basoan çu çaoça⁵ fundadua
eta, il çan arren fundadorea,⁶ 5
bacus⁷ munduac çure balorea.

¹ *Monesterio*: Cf. Lcc “monesterio, *monesterioa*”.

² *eben*: ‘hemen’.

³ *prencipala*: ‘nagusia’; *DAut*-ek ez dakar, eta Landuccik *prencipala* dakar; alabaina, *CORDE* datu-basean *prencipal*- aldaera 606 aldiz lekukotzen da 1650 arte.

⁴ *barria*: Hemen, B22 (*Elexa santa debota bat da / monesterio barria...*) poeman bezala, Barriako (Narbaiza, Araba) moja zistertarren monasterioaz ari dela uste dugu. XII. mendearen amaieran edo XIII.aren hasieran sortu zen komentua (Gregorio IX.a Aita Sainduak 1232.ean eman eta 1235.ean berretsi zuen monasterioa bere babespean hartzen zuen bulda), baina ez dago garai horretako eraikinik zutik, oraingo eraikinik zaharrenak XV. mendekoak baitira. 1970eko hamarkadan utzi zuten moja zistertarrek komentua eta Oionera joan ziren.

Lazarragaren garaian Barriako monasterioa berria zela uler daiteke, hain zuzen XVI. mendearen erdialdean egin zirelako eraikuntza-lan nagusiak: Marina Gebara Lazarraga abadesa zela (1538-1560) ekin zitzaizen lan nagusiei, eta gero, Ana Belasko abadesa zela (1561-1566), klaustroa egin zen.

⁵ *çaoça*: ‘zagoz, zaude’; hemen indikatiboa da. Eskuizkribuan *egon* aditzaren *çaoça* eta *çaoz* aldaerak biltzen dira; *çaoz* hala agintera nola indikatiboa izan ohi da; *çaoza* gehienetan agintera da, eta soilik hemen indikatiboa.

⁶ *fundadorea*: Ziur aski Marina Gebara Lazarraga abadesa ohiaz ari da, hark egin baitzuten eraikuntza-lan nagusiak eta 1560.ean hil baitzen. Jesús Moyaren ustez (Moya 2010: 187), Bidaurretako moja klaratarren komentuaz ari da, eta Juan de Lazarraga (1518.ean hila) da hemen aipatzen den *fundadorea*.

⁷ *bacus*: ‘badakus, ikusten du’; eskuizkribuan adizkiek *bada-* > *ba-* kontrakzioa pairatzen dute *ba-*aurrizkia asertiboa delarik, ez aldiz baldintzazkoa delarik: *Gauça fortiça oy dana bacust / ezconduaren carguea* (A24 : 153-54), *Cegaiti baquit daqusunean / nola çarean eongo* (A12 : 15-16). Gainerako mendebaldeko testu arkaikoetan alderantzizko gertaera lekukotzen da: *Uzkur baquio ecachari, sendaquiue eguzquiari* (RS 251), *Eguin zaar[r]aren esana, nayz urac berama* (RS 465), *Gach eguiten boc aynbesteri ychadoc* (RS 296).

Cegaiti çu çara, dubdadu⁸ бага,
 corridu badidi⁹ ondo mundua,
 beste guztietan estimadua.

Oñ-escu çardenoc¹⁰ apacen¹¹ diot,¹² 10
 ill[ustr]e abadesa notadea,
 cerren eguin deustan mesedea.¹³

Conbento guztia generalm[en]te¹⁴
 saludacen dot nic agur eguinda;¹⁵

⁸ *dubdadu*: ‘dudatu, zalantza izan’; *-bd-* grafia kulta, gaztelaniaz, erruz erabili zen XVI. mendean eta XVII. mendeko lehenengo bi hamarkadetan; hortik aurrera ia ez da agertzen.

⁹ *corridu badidi*: ‘korritu badadi, ibili badadi, ibiltzen bada’.

¹⁰ *çardenoc*: ‘lirainok, lerdnok’; *OEHn* Azkueren hiztegikoak dira datu nagusiak: “**zarden** (V-ger-arroroz-och-m-gip), **zardain** (V-ger), **zardin** (V-ger), **sarden** (V-gip)”. Lazarragaren eskuizkribuan hiru aldiz dago: *escu çardenaz* (B12: 19), *oñ-escu çardenoc* (B15: 10) eta *Neure araguioc dacustanean / cein çarden direan escuchoetan* (B15: 61-62).

¹¹ *apacen*: ‘musu ematen’; eskuizkribuan bi bider dago *apa egin* ‘musua eman’ (*eguiten apea* A17: 19 eta *apa bat baneydiçu* A24: 22) eta behin *apatu* (*oñ-escu çardenoc apacen diot* B15: 10). *OEHn* arabera, s.v. *apatu* “Documentado sólo en textos de autores alto-navarros”.

¹² *diot*: Berorika ari da.

¹³ *cerren eguin deustan mesedea*: Komentu guztiaren aurrean bere poema irakurtzeko hitza ematea izango litzateke abadesak mojarri egin dion mesedea.

¹⁴ *generalm[en]te*: ‘salbuespenik gabe’; cf. *DAut*, s.v. *generalmente*: “Comúnmente, y por la mayor parte sin excepción”. Cf, orobat, *CORDEn* aurkitutako adibide hauek, beste hainbaten artean: “Esta buena nueva ha alegrado a todos **generalmente**” (Luis Cabrera de Córdoba, c. 1599-1614, *Relación de las cosas sucedidas en la corte de España desde 1599 hasta 1614*), “todos **generalmente** se alegraron con la buena venida del fingido Baco” (Luis Gálvez de Montalvo, 1582, *El Pastor de Filida*).

¹⁵ *eguinda*: Hiru tokitan erabaki dugu *-ta* partizipioari lotuta idaztea: *joan cidin floresta bateti aurrera, Clariani bacarric ichita, ceñac, bacarric gueratu çala ecusen orduan, asi çan, negarrez beteric bere beguiac eucala, berva oec esaten* (AL: 1151r), *ceurc ecusita / ez naxana min бага quexaetan, / baice justo naxala escaetan* (B3: 85-87) eta *Conbento guztia generalm[en]te / saludacen dot nic agur eguinda; / belaurico, barriz, çu, ene lind[a]* (B15: 13-15). Partizipioari atxikitako atzizki gisa agertzea berrikuntza bat da, eta XVIII. mendera arte adibide bakanak aurkitzen ditugu euskal testuetan. Horregatik, Lazarraga eskuizkribuan hiru adibide seguru horiek baino ez ditugu halakotzat hartu; gainerakoetan, aldiz, usadio zaharra hartu dugu kontuan eta, ondorioz, [partizipioa + ta] segida bereizita idaztea erabaki dugu, haietan guztietan ta juntagailu arrunt gisa ulertzeko eragozpenik ez dagoelako, alegia. Eskuizkribuan *-ta* gehienak partizipioari lotuta agertzeak ez du balio erabaki horren kontra, zalantzarik gabe kopula denean ere hala idazten baitu Lazarragak; ikusi hau, adibidez, eskuizkribuan idatzita dagoen moduan: *Silvero eta Silvia, Doristeota Sirena* (AL: 1152r). Cf. *OEH*, s.v. *eta*: “2. (SP, Dv, H). (Precedido de participio o de radical verbal). Generalmente tiene un sentido temporal. A menudo también con valor condicional: *Halakoa utzi eta, non dukegu berzia?* E 91. *Iainko bat baizen*

belaurico, barriz, çu,¹⁶ ene lind[a].

15

Abisada¹⁷ eder parebaguea,
 eztacart gorguera, eztaust gona;¹⁸
 ecusi nagui,¹⁹ ce ni ona-ona.²⁰

Ni caso²¹ naxala baldin badator

euroen²² artera tentacioa,

20

bertati²³ esque nax²⁴ parcacioa.

ez izan eta, zergatik hirur aiphatzen dituk? Lç Ins C 1r. Cuando se emplean las variantes *da* o *ta*, resulta difícil diferenciar este uso de *eta* del uso adverbial del participio con sufijo *-ta* (*izanda*, *etorrira*, sinónimo del general *izanik*, *etorririk*) propio de los dialectos meridionales. Cf.: *Mila urte igaro eta ura bere bidean*. RG 60; pero en el ms. A 25: *mila urte igarota*. De hecho, parece seguro que estos participios con sufijo *-ta* se derivaron del uso de *eta* que aquí tratamos. Cf. las expresiones temporales del tipo *egin eta gero*, *egin eta berehala*, etc.”

¹⁶ *çu*: Agurtzen zaitut zu, alegia. Abadesari hitz egiteko *beroritik* (B15: 10) *zura* aldatu da. Beste hiru poematan, ordea, *zutik berorira* aldatzen da, solaskidea aldatu gabe: A7: 119, A16: 35 eta A23: 37.

¹⁷ *Abisada*: ‘zuhur, zentzudun’; cf. *DAut*, s.v. *avisado*: “Vale también advertido, discreto, sabio y capaz. Es hispanismo, pero mui freqüente en nuestra lengua”.

¹⁸ *eztacart gorguera*, *eztaust gona*: Hala *gorguera* nola *gona* mugagabeak dira (*gorguerea* eta *gonea* lirateke mugatuak), seguru aski ezezkako testuinguruaren eraginez; izan ere, ezezkako perpausetako objektu zuzenak erreferentzialitate maila apalekoak izaten dira, errealitatean ez diren objektuei egiten baitiete erreferentzia. Kasu honetan, beraz, ez da *gorgera* eta *gona* jakin batzuez ari, etxean izan ditzakeen batzuez, adibidez; aitzitik, modu orokorrean egiten die erreferentzia horien kontzeptuari. *gorguera*: ‘goleta, iduneko’; cf. *DAut*, s.v. *gorguera*: “Un género de adorno de lienzo plegado y alechugado, que se ponía al cuello”.

eztaust: ‘ez zait eusten, ez dut janzen’; *eutsi* aditzaren NOR-NORI forma trinkoa.

¹⁹ *ecusi nagui*: ‘ikus nazala (berorrek)’; euskara historikoan, *berori* subjektua duen agintera *b-aurrizkidun* (*besa*, *esan beza...*) edo *-la* atzizkidun (*datorrela*, *etor dadila...*) formen bidez adierazi ohi da. Lazarragak erabilera ezezagun baten berri ekartzen digu iragankorretan. Izan ere, subjektua 3. pertsonakoa duten formak, aginterazko forma arruntak bezala eratu ditzake, aurrizki edo atzizkirik gehitu gabe: *il nagui* (A3: 26), *ezcondu nagui* (A19: 4), *ifini nagui* (A28: 33), *ecusi nagui* (B15: 18). Azpimarratu behar da bildutako forma guztiek 1. pertsonako objektua dutela, eta objektua 2. pertsonakoa dutenekin *-la* atzizkidun formak erabiltzen dituela: *Jaun cerucoac, ene lastana, oy deguiçula parcatu* (AL: 1146r).

²⁰ *ona-ona*: Superlatibo-era ezagunena *on-ona* litzateke, mugatzailea soilik bigarren adjektiboari ezarrita, baina Azkueren hiztegiak *oña-oña* bildu zuen: “(Vc, Gc, L, BN, S, R), cosa buena (voc. puer.). Dim. de *ona*”. Etxeitarenean ere (XX. mendean) aurkitu dugu *ona-ona* bat: *nik ezin neio egin zittalkeriarik ona-ona dan mutillari* (Josetxo, X).

²¹ *caso*: ‘kausa’; cf. *OEH*, s.v. *kasu*: “(Precedido de *-(e)la*). A causa de, con ocasión de”. Egitura hau bi aldiz dago Lazarragaren eskuizkribuan (B15: 19 eta B16: 111).

²² *euroen*: Iduri luke berorika ari dela, pluralean, eta erreferentea abadesa eta gainerako mojak direla; abadesari berorika egin behar dionez, denei hitz egiten die hala. Hemen eta B4: 2 bertso-lerroan aurkitzen dugu *euroen* forma; gainerakoetan *euren* erabiltzen da beti.

<1181v>	Cegaiti monjea iñox eztago baice ³⁵ au edo ori pensaetan, beti bere coitaen ³⁶ arilquetan.	35
	Jaiorean ³⁷ ninçan desdichadea, cerren aita neben guztiz gogorra, ³⁸ senideac labor, ³⁹ ama leorra.	
	Ene senideac libre daoça, ⁴⁰ gozacen davela libertadea; ni nago catigu ⁴¹ subjeteada.	40
	Cilegui davela euren senarraz iragaiten ⁴² gustosoro ⁴³ bicia,	

³³ *egun*: ‘gaur (egun)’; cf. *OEH*, s.v. 2 *egun*: “Empleado de forma general por autores septentrionales y alto-navarros; en textos más occidentales se encuentra, por un lado, como término fosilizado en la oración del Padrenuestro, desde Capanaga hasta casi nuestros días; tbn. lo hallamos en unos versos vizcaínos de 1688 y en Barrutia. En textos guipuzcoanos es algo más frecuente: lo emplean Larramendi, Mendiburu (*IArg* I 91), Iturriaga (*Fab* 194) e Iztueta, y ya en el s. XX hay testimonios de bastantes más autores, especialmente desde 1950; Aguirre de Asteasu sólo emplea la expresión *egungo egun*”.

³⁴ *aratixte*: ‘aratuste, inauteri’; cf. Lcc “antruejo, *aratizteac*”.

³⁵ *baice*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin *-n* se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *baxin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*”.

³⁶ *coitaen*: ‘nahigabeak hariltzen’; TO-GEN deituriko egitura da, hots, *coitaen* da *arilquetan* aditz iragankorraren objektua, genitibo pluralean.

³⁷ *Jaiorean*: ‘jaiotzatik’; [Klasikoen Gordailuan](#) ez da agertzen *jaiotik*, ez (*h*)iletik (‘norbait hil denetik’ adieran), ez *sort(h)utik*.

³⁸ *gogorra*: Hemengo *gogorra* eta beheagoko *labor* eta *leorra* bere perpausetako objektuen predikatu dira, predikatu bikoitzeko egitura banatan. Forma mugagabeen agertzen da *labor* predikatua, ziur aski erreferente duen *senideac* izena pluralean dagoelako; *aita* eta *ama* izen singularren *gogorra* eta *leorra* predikatuak, aldiz, forma mugatuan agertzen dira.

³⁹ *labor*: ‘doilor’; cf. *Milia Lasturkoren eresiko* “Peru Garciac eguin deuscu laburto”.

⁴⁰ *daoça*: ‘dagoza, daude’; eskuizkribuan behin aurkitu dugu *daoz* (A26: 50) eta behin *daoça* (B15: 40); ikusi baita *çaoz* / *çaoça* formen banaketari buruzko oharra ere, B15: 4 bertso-lerroko oharrean.

⁴¹ *catigu*: ‘gatibu’.

nic ez “bay” esateco⁴⁴ licencia.⁴⁵

45

A daraçanean⁴⁶ bere senarrac
bere beso laztanaz estalduric,
nic jagui bear oy⁴⁷ dot oçac ilic.

Gaztea⁴⁸ sartu ninçan,⁴⁹ sentiçaca⁵⁰

⁴² *iragaiten*: Aditz honen partizipioa beti (bi aldiz) da *irago* eskuizkribuan (AL: 1153r eta A14: 97); aditz-izena beti (lau aldiz) da *iragaite*:- *iragaiterren* (AL: 1146r), *iragaiten* (A2: 19, A17: 70, B15: 44); baina testuko aditz trinko bakarrak kontsonanteen metatesia dauka: *naygaran* (B28: 1). *OEHko* sarrera (s.v. *igaro*) interesgarria da, hala *igaro* / *irago* alternantziari dagokionez, nola aditz trinkoari dagokionez: “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces. **Irigo (documentado ya en Landuccio y Nicolás de Zubia)**, es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquizu, Gamiz (206)); en el XIX es bastante frecuente: Moguel (tbn. *igaro*), fray Bartolomé, Astarloa, Arrese Beitia (tbn. un ej. de *iragotu* (*AmaE* 449)), Iturzaeta; en el s. XX sólo se encuentra en Lauaxeta (*AB* 58); pero cf. *infra* IGAROKO. Fuera del vizcaíno, emplean *irago* Larramendi (*Cor* 300), Xenpelar (191), F. Goñi y E. Arrese. **Se encuentran formas fuertes en los Refranes de Garibay y Bertso Bizkaitarrak (en ambos aigara), y en Refranes y Sentencias (digaran (231), con suf. de relativo)**; en el s. XX algunos autores (Lauxeta (*BBa* 76), L. Jauregi (*Biozk* 4), Gaztelu (*MusIx* 83)) recrean formas fuertes como *digaro*. El sust. vbal. *igaraite*- lo emplea Capanaga (part. *igaro*), e *iragaite*- Urquizu (tbn. *iragote*- (57); part. *irago*); hay *igaroite*- en *CatLlo* (96) y *CatBus* (57), siendo en ambos *igaro* el part. En *DFrec* hay 156 ejs. de *igaro*”.

⁴³ *gustosoro*: ‘gustura’; *OEHk* ez dakar aldaera hau.

⁴⁴ “bay” esateco: Ezkontzeko, alegia.

⁴⁵ *licencia*: Artikulurik gabe dago hemen *lizentzia*. Behin baizik ez da ageri eskuizkribuan hitz hau artikularekin (*licencia*, *arren*, *indaçu*, A10: 19). Artzain-liburuko adibideetan (AL: 1146r bitan, AL: 1147r) beti dago *lizentzia eskatu* esapidearen barruan, eta horrek azaldu lezake artikulua falta. Baina honako honetan, B26: 10ekoan bezala, ez dago argi zergatik dugun artikulurik gabeko forma.

⁴⁶ *daraçanean*: ‘eratzaten duenean, besarkatzen duenean’; *eratzan* aditzaren lau adizki trinko aurkitu ditugu eskuizkribuan: *naraçaçu* (A17: 48), *daraçagula* (A17: 96), *eraçala* (A25: 46) eta *daraçanean* (B15: 46). Adierari dagokionez, A17: 96koa da honen antzekoena. Cf. baita *Nic nahyen dudanian bercech bessoan daraça* (Etx. IV, 18).

⁴⁷ *oy*: ‘ohi’; Lazarragaren eskuizkribuan, hamabi aldiz ulertu dugu *oy* / *oi* partikulak ‘ohi’ adierazten duela: *egon oi da* (A14: 46), *oy ninduan penadu* (B12: 4), *Gabaz-egunaz oy nituan / aren atear rondadu* (B12: 5-6), *nic jagui bear oy dot oçac ilic* (B15: 48) eta *Bezpera artan gentez oy da / ayuntamiento andia* (B22: 19-20), *Eleiçara juen oy naiz, / eguin oy det becatu* (B27: 1-2), *Avemaria asi baice, / ecin oy det notatu* (B27: 3-4), *ofrendara dianean / ondo oy det miratu* (B27: 9-10), *Sperançaç bici oy n[aiç] / erri oneçaç atean; / sperancea galdu oy det / errira natorrenean* (B28: 7-10).

⁴⁸ *gaztea*: ‘gazterik’. Balio adberbiala du izen-sintagma artikuludun honek; eskuizkribuan aurrerago antzeko balio adberbiala duten adibideak aurkitu daitezke: *tenporea da eбилteco / aceptoa ta garbia* (B22: 17-18). Egun ekialdeko hizkera batzuetako ezaugarri da artikuludun sintagma zenbaiten balio adberbiala; cf. *zuzen-zuzena* ‘zuzen-zuzen’, *bizi-bizia* ‘bizi-bizirik’.

⁴⁹ *sartu ninçan*: ‘sartua izan nintzen, sartu ninduten’; hots, egitura pasiboa. Testu arkaikoenetan, “partizipioa + *izan*” perifrasi erabiltzea arrunta da pasiboaren adierazteko: *Urrunera dohena*

andi⁵¹ arçait⁵² neben engañua; 50
 bici nax bici guztiz estrañua.⁵³

Contentu baga dacust ditudala
 neure urte dulceac castaetan,⁵⁴
 loturic nagoala olz⁵⁵ oetan.

Isi jaçun, bada, seculareco⁵⁶ 55

ezkontzera, edo da enganatu edo doha enganatzera (Oih. Prov. 675), *Zein sainduren besta daten orhit egun berian / eta noren ycenetan fundatu den eliça* (Etxp. I : 56), *Iltean il ninçan, da aztu ninçan* (Lcc. 328), *haur gucia eguin içan da Prophetáz erran cena compli ledinçát* (Leiz. Mat. XXI, 4). Poema honetan, egitura honen beste adibide bat biltzen da beheraxeago: *dirurren saldu ninçan esclabea* (B15: 60), *Andre Emiliaren kantari agertzen den saldu nintzen saritan* (/ *dirutan* Humboldt eta Azkuek bildu bertsoetan) lerroa oroitarazten diguna.

⁵⁰ *sentiaçaca*: ‘sentitzeke, sentitu gabe, ohartu gabe’.

⁵¹ *andi*: ‘handi’. *Engañua* objektuaren predikatua da; mugagabea agertzen da. Halako beste bi adibide ditugu *andi* predikatuarekin: *Çu serviceco andi dot deseoa* (A17: 47) eta *oy eta aen gobernaceco / bear dau andi mañea* (A24: 77-78); denak dira predikatu bikoitzeko egiturak, eta aditzaren objektuaren predikatu da *andi*. Badira, halaber, predikatu bikoitzeko egitura hauen artean *andia* forma mugatua duten beste hiru adibide: *Poderioa andia doçu*, / *Ceruco Jaunac emunic* (A7: 39-40), *Oy eta bardin onela bada*, / *andia jatort caltea* (A24: 5-6) eta *nay deban orduetaco / andia dacar fantasia* (B26: 5-6). Predikatu sinpleetan forma mugatua agertzen da beti: *ene peneau oneyn andia dan azquero* (AL: 1152r), *Ene fedeau andia da ta* (A3: 21), etab. Orobat objektu funtzioan, salbuespen bakarrarekin: *cerren aseguin andi leyola* (B3: 33).

⁵² *arçait*: ‘hartzaiten, hartzen’; -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n*- hurrengo silaban).

⁵³ *bici nax bici guztiz estrañua*: Hiru lekutan dago eskuizkribuan egitura hau: *bici nax bici penadua* (A21: 15), *bici nax bici contentua* (A21: 33) eta *bici nax bici guztiz estrañua* (B15: 51). Bi eratara uler daitekeela uste dugu: 1) ‘bizi dut bizitza penadua / kontentua / estrainua’; *bizi* NOR jokabidean izan arren, horren objektua litzateke *bici penadua / bici contentua / bici guztiz estrañua*. 2) ‘bizi naiz penadurik / kontenturik / estrainurik’; interpretazio honetan, bigarren *bici* ere aditza litzateke, lehenengoaren errepikapen indargarria, eta ondoren datorrena aditzondoa; B15eko lekukotasunean zaila egiten zaigu bigarren interpretazio hau defendatzea, eta lehenengoa hobetsiko genuke, beste hauek ere kontuan izanik: 1) Eskuizkribuan badira beste aditz batzuk ere, gaur iragankorrek, NOR jokabidean baina objektuarekin (*beste amore bilatuco nax* A4: 11, *remedioa bila citecen* A11: 33, *escatu cidin arpa bat* AL: 1142v) 2) Gaztelaniaz ugari dira *CORDEn* aurkitu ditugun “*vivo una vida* + adjektiboa” ereduko esaldiak: *vivo una vida enojosa y desesperada* (Fernando de Mena, 1587, *Traducción de la Historia etiópica de los amores de Teágenes*), *vivía una vida contenta y descuidada* (Miguel de Cervantes, 1605, *El ingenioso hidalgo don Quijote de la Mancha*), *vivo una vida desierta* (Juan Valladares de Valdelomar, 1617, *Caballero venturoso*), *vivía una vida bienaventurada* (Manuel Rodríguez, 1684, *El Marañón y Amazonas. Historia de los descubrimientos*).

⁵⁴ *castaetan*: ‘gastatzen’; Landuccik ahostunarekin hasten den forma dakar (“estragar, gastar, *gastadu*”). *OEH*ren arabera (s.v. *gastatu*), bizkaieraz eta Añibarrorean aurkitzen dira ahoskabeaz hasten diren formak (*kasta*-).

⁵⁵ *olz*: ‘holtz, pareta mehe’; cf. *OEH* eta bereziki Lcc: “Abarrar la pared, *loiakin olzak barritu*”, “Pared, *olza*”, “Poste, *olza*”.

carcel⁵⁷ gogor onetaco ateaç;
ay ay, ene narru çuri gazteaç!

Ama libreaganic jaio ninçan
dicharic ez nebenau alabea;⁵⁸
dirurren⁵⁹ saldu ninçan⁶⁰ esclabea.

60

Neure araguioc dacustanean
cein çarden⁶¹ direan⁶² escuchoetan,
bertati jasarte⁶³ nax eresquetan.⁶⁴

⁵⁶ *seculareco*: ‘sekulako, betirako’; *OEHN* ez dago ez *sekulareko* (Lazarragarenean B15: 55) ez *sekularekoz* (Lazarragarenean A26: 141). Elizanbururenean *sekula sekularenekotz* (*Lehenagoko eskualdunak zer ziren*, XIV) aurkitu dugu eta *OEHN* aski lekukoturik dira hala *sekularean* nola *sekula sekuloronean*, *sekula sekuloroneko*, *sekula sekuloronekotz* formak (latinezko *per saecula saeculorum* hartatik eratorriak). Iduri luke Lazarragaren formak horien aldaera direla.

⁵⁷ *carcel*: *carcela* idatzi du lehenengo, eta gero, *-a* tatxatuta, *carcel* utzi du, gaztelaniazko formatik hurbilagokoa; *-a* gabeko formarekin, bertso-lerroaren neurria hobeto geratu zaio, sinalefa egin beharrik gabe (*onetaco + ateaç*). Nolanahi ere, cf. Lcc “cárçel, carçelea” eta “cárçel pública, carçela”.

⁵⁸ *alabea*: Bai honek eta baita beheko lerroko *esclabea* hitzak balio predikatiboa dute; deigarri da artikuludunak izatea. Predikatua mugatua izateaz, cf. 49. bertso-lerroko oharra, s.v. *gaztea*.

⁵⁹ *dirurren*: ‘diruagatik’; *-arren* atzizkia lau bider aurkitu dugu eskuizkribuan, izenari gehituta *-gatik* atzizkiaren baliokide gisa, baina hemen bakarrik *-a* gabe, *-rren* aldaeran: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B20: 14), *dirurren* (B15: 60). Aditz-izenari gehituta ere agertzen da, *-tearren*, *-etarren* eta *-t(z)erren* aldaeretan.

⁶⁰ *saldu ninçan*: ‘saldua izan nintzen, saldu ninduten’; cf. B15: 49ko oharra (s.v. *sartu ninçan*).

⁶¹ *çarden*: ‘lirain, lerden’; cf. B15: 10 bertso-lerroko oharra.

⁶² *direan*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatueta ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doean* (RS), *daroa + -an > daroanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138v, B30: 6), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B15: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B3: 65, B16: 31, B16: 44), *guinean* (A7: 8, B16: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroan* (B16: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroala* (B16: 16), *eroanari* (A29: 74), eta *-ea- > -ia-* aldaketarekin *dirian* (B28: 15). Ohar gaitzen Landuccik aditz gutxi dakarrela eta zaila dela gertakizun honi buruzko ondoriorik ateratzea, baina bada adibide bat behintzat iradokitzen duena Landuccirenean ez bide dela halakorik gertatzen (“antecedente, aurrera doana”).

⁶³ *jasarte*: ‘jesarten, jartzen’; *jasarri* aditzaren esanahiari dagokionez, badirudi hala ‘eseri’ (A17: 99, A26: 149, B12: 49) nola ‘jarri’ (A10: 7, B5: 13, B15: 63) esan nahi duela eskuizkribuan, testuinguruaren arabera. Hemen ere, 50. bertso-lerroan bezala, *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n-* hurrengo silaban).

⁶⁴ *eresquetan*: ‘erosta jotzen, auhenez, deitorez’; *eresi* aditzaren aditz-izena da, izan, eta testu honetatik kanpo adibide zahar guztiak izenarenak dira (cf. *OEHN*, s.v. 1 *eresi*). Bi aldiz dago eskuizkribuan: *Aide*

<1182r>	Amore dulcearen ardurea	
	ceinbat ⁶⁵ dodan probadu guchiago,	65
	ainbat irudicen jat dulceago.	
	Canpuan oba leuque achurçala, ⁶⁶	
	içango baleu bere beti presa, ⁶⁷	
	mila monjaren baño abadesa. ⁶⁸	
	Contentuago dago alacoa	70
	jaaten ⁶⁹ dabela basalloreia, ⁷⁰	

baga bacox nago desdichadeau eresquetan (A25: 39) eta *Neure araguioc dacustanean / cein çarden direan escuchoetan, / bert[ta]ti jasartenax eresquetan* (B15: 6163).

⁶⁵ *ceinbat*: ‘zenbat’; ikusi *cinbat* (A26: 79).

⁶⁶ *Canpuan oba leuque achurçala*: Hiperbatoirik ez balego, hitz-ordena estandarrean honela ulertuko genuke: ‘hobe luke kanpoan aitzurzale (izan)’.

Canpuan: ‘landan’; eskuizkribuan beti dago *canpu* forma, Landuccirenean eta Gamizenean bezala (eta ez *kanpo*, beste autore guztiek erabiltzen duten bezala, *OEhk* dioenaren arabera). Esanahiari dagokionez, behin bakarrik esan nahi du ‘kanpo’ (vs ‘barru’, A26: 82), eta, ñabardurekin bada ere, bost aldiz dauka Landucciren erabilerara hurbiltzen den ‘landa’ adiera: bitan ‘landa’ (vs ‘hiria’, AL: 1145v eta B15: 67), beste bitan ‘landa zabala’ (vs ‘leku txikia, leku jakin bat, erreferentziako lekua’, AL: 1152v, AL: 1153v), eta behin ‘zelaia, jokalekua’ (zehazkiago ‘justetako zelaia’ A1: 10).

achurçala: ‘aitzurzale, aitzurlari’; eskuizkribuan hemen baino ez dugu aurkitu *-çala* atzizkia. Forma mugagabeen daude *achurçala* eta beheagoko *abadesa*, artikulurik gabe. Hemen, *oba leuque* aditzaren balio hipotetikoak predikatua mugagabeen agertzea errazten du, aintzat hartuta, gainera, *achurçala* eta *abadesa* hitzek erreferentzia generikoa dutela.

⁶⁷ *presa*: ‘presa, estura’.

⁶⁸ *mila monjaren baño abadesa*: Hiperbatoia nabarmena da, beste hau adierazteko: ‘mila mojarren abadesa baino’; hiperbatoizko egitura bera dago 72. bertso-lerroan. Ahapaldi osoan ere hitz-ordena estandarra aski aldatua da.

⁶⁹ *jaaten*: *Jan* eta *izan* aditzek aditz-izena osatzeko *-te* atzizkia hartzen dutenean, *-aa-* bokal bikoitza gertatzen da. Aditz horiek beroriek bestelako formatan (*izango, jango, izan, jan, janda*) ez dute inoiz bokal bikoitzik agertzen. Itxura guztien arabera fenomeno morfologikoa da oinarrian. Honelaxe dio *OEhk jan* aditzari buruz (*izan* aditzari dagokionez, *OEhk* ez dakar bokal bikoitzeko adibiderik): “Documentado en todas las épocas y dialectos. La forma *jan* es general; *jaana, jaate-* (aunque no *jaan*) se documentan en Capanaga, Zusaeta (88), Moguel (*PAb* 164), V. Moguel (12), J.J. Moguel (*BasEsc* 261) y fray Bartolomé (*Ic* III 273)”.

⁷⁰ *basalloreia*: ‘ogi beltza, ogi eskasa’; cf. *OEh*, s.v. *basailora*: “**basailora** (G), **basilora** (V-gip), **basaroi** (G-azp). Ref.: A (*basailora, basaroi*); Iz *ArOñ* (*basillo(r)a*), *UrrAnz* (*basilloria*); Elexp *Berg* (*basilloria*). “Comuña, pan de inferior calidad” A. “(G-goi), salvado más fino” Ib. s.v. *zai*. “Un pan de baja calidad” Iz *ArOñ*. “El pan sin quitar del todo el salvado” Iz *UrrAnz*. “Al pan integral se le llama *basalloria* (Oñate)” *AEF* 1927, 79. “Pan hecho de harina de baja calidad, con mezcla de salvado. *Makina bat ogi beltz jandakuak gaittuk gerra ostian. Orduan, basilloria esaten jakuan*” Elexp *Berg*. v.

eperqui janic baño priorea.

Cerren beti bere da arinago

borondatez nequea eguitea

baño bere posa⁷¹ asedetea.⁷²

75

<1182v> Orain dator fraile malmaz⁷³ arro bat,

achaquiz arturica⁷⁴ bisitea,

oñagaz dacarrela aguintea.⁷⁵

basole. “*Basillora* (V-gip), harina de clase muy inferior” A”. Cf. orobat *OEH*, s.v. *pasailora*: “**pasailora** (-ill- V-gip?, G-azp? ap. A), **pasallore** (Lar → H), **pasalore** (H). “Pan bazo” Lar. “Comuña, pan bazo” A”.

⁷¹ *bere posa*: ‘bere bortxa, bere borondatearen kontra’; *posa* ‘bortxa’ formari dagokionez, cf. *Posaco orac heyz onic ezin ley* “El mastin forçado caça buena no puede hazer” (RS 377). Hemen, genitiboarekin dago (*bere posa*), *OEHn* bilduriko beste zenbait adibidetan bezala (s.v. *bortxa* 3): “(SP). (Precedido de gen.). A pesar de. “*Gure bortxa*, malgré nous” SP. [...] *Lehenik eraman zioen bizia Abner, Saulen odoleko printzeari, Dabiten bortxa*. Lg I 320”.

⁷² *asedetea*: ‘atseden egitea, atsedean hartzea’; eskuizkribuan beste behin agertzen da aditz moduan erabilia: *aseden eta guero* (B16: 148). Cf. *OEH*, s.v. *atseden* II: “*Atsedenez atsedean dait*. “Con morir descansará”. *RS 252 (dait funciona aquí como aux. trans. [...] Atsedeteko batek mundu onetan, edo ar dezakean deskansua artzeko, ezi bear ditu [...] bere pasioak*. Mb *JBDev* 170”.

⁷³ *malmaz*: ‘gaizto’; *OEHk* ez dakar hitz hau, eta ez dakigu *malmutz* hitzarekin erlazionatu behar den (*malmutz* adjektiboaren lekukotasun zaharrenak XIX. mendekoak dira *OEHn*), ala Erdi Aroko *malvaz* ‘gaizto’ (cf. *malvado*) adjektiboarekin; izan ere, *demo malvaz* (‘demonio maligno’ gaurko gaztelaniaz) eta *o poblo dos judeus malvaz* ‘juduen herri gaiztoa’ aurkitu ditugu Alfonso X el Sabioren *Cantigas* liburuetan galaikoportugesez, eta *oriella malvaza* (‘viento maldito, tiempo muy malo, tormenta maligna’ gaurko gaztelaniaz) Gonzalo de Berceoaren gaztelania zaharrean. Cf. Corominas 1980-1991, s.v. *malvado*: “*malvado* [...] es mucho más probable que ésta se tomara de oc. ant. *malvat*, -ada (caso recto *malvat*), alteración analógica de *malvat*, -aza, que también se halla en los trovadores, y viene regularmente del documentado MALIFATIUS. [...] Léese en Berceo *oriella malvaza por* ‘viento maligno’. Ésta era la forma que debería esperarse en castellano, luego reemplazada por el secundario *malvado*”.

⁷⁴ *arturica*: ‘harturik’; -rika atzizkiarekin; cf. Portal *guiçonica*, *alegrerica*, *jarririca*, *jansirica*, *pobreçarica*, *yrtenica*, *arturica*. Eskuizkribuan hiru lekutan aurkitu dugu: *achaquiz arturica bisitea* (B15: 77), [...] *sigarica banendorren* (B30: 1), *Damarica dan galantaena* (B32: 3). Eskuizkribuan bada -tika atzizkia ere, behin (*Gaztelatica* A12: 1).

⁷⁵ *oñagaz dacarrela aguintea*: Bi eratara uler daitekeela uste dugu:

1. ‘oina eta agintea dakartzala, maila eta agintea dakartzalarik’. Honela ulertuz gero, “Xgaz Y” egitura litzateke, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko; kontuan izan behar da egitura estandarra (“Xrekin Y”) are gehiago katramilatu dela hiperbatoiarenean eraginez aditza ere (*dacarrela*) egiturako elementuen artean tartekatuta denean.

2. ‘oinarekin batera, urratsarekin batera dakarrela agintea’, hots, ‘oina komentuan sartzearekin bat agintzen hasten delarik’.

Erabilten⁷⁶ gaitu ilabetean
 bere tripearençat errastruan;⁷⁷ 80
 gueur,⁷⁸ barriz, tiri-tayo⁷⁹ conbentuan.

Arençat eperra, bardin⁸⁰ al bada;
 ez gorri tantaric, baice⁸¹ çuria;⁸²
 aumaric⁸³ badogu, ez açuria.⁸⁴

Conbenturic conbentu dabilela, 85
 or ase, eben⁸⁵ bete, bigardoa;⁸⁶
 mutil, mando, bota ta tabardoa.⁸⁷

⁷⁶ *Erabilten*: ‘ibilarazten’; hemen, *ibili* aditzaren kausatiboa da *erabili*.

⁷⁷ *bere tripearençat errastruan*: ‘bere tripa betetzeko gauzak bilatzen’.

⁷⁸ *gueur*: ‘geu’, izenordainaren forma zaharra. Cf. *gueurcheoc* ergatiboa (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46) eta *ceur* (A23: 70).

⁷⁹ *tiri-tayo*: Iduri luke onomatopeia dela, baina ez dugu beste inon aurkitu. Ez dakigu esanahi zehatza zein den, baina, testuinguruaren arabera, ‘goseak, ezer gabe, moko-huts’ izan liteke.

⁸⁰ *bardin*: ‘baldin’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzarik gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B15: 82, B16: 93, B16: 98, B21: 101).

⁸¹ *baice*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin *-n* se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *baxin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*”.

⁸² *çuria*: Ardo gorri eta ardo zuriaz ari da seguru aski, ardo zuria ardo hobetzat hartzen baitzen.

⁸³ *umaric*: ‘antxumerik’. Alabaina, Landuccik “chibo o cabrito, *aunchumea*” eta “cordero, *aumea*” dakartza.

⁸⁴ *açuria*: ‘axuria, bildotsa’.

⁸⁵ *eben*: ‘hemen’.

⁸⁶ *bigardoa*: Cf. *DAut*, s.v. *bigardo*: “Nombre injurioso con el que el vulgo malamente se burla y denuesta a los religiosos, faltando al respeto y equivocándolos con el de Begardos, hereges antiguos, escandalosos y obscenos”.

⁸⁷ *mutil, mando, bota ta tabardoa*: Bertso-lerro honek fraileari komentuetan emandakoen zerrenda ematen bide du.

mutil: ‘morroi, zerbitzari’.

Niri, barriz, cerren neguian berba⁸⁸

neure aide jabe prencipal⁸⁹ batez:

“*Deo graciaz*,⁹⁰ çu, açota çatez”.⁹¹

90

Ipochrita, bellaco, riguroso,

*soberbio, regalón*⁹² *y desonesto;*

Jauna, barca çaquezt,⁹³ *si peco en esto.*

<1185v>

Cabuan⁹⁴ emaiten dau firmaduric

conclusioz: “cercera bercerea,

95

nebeaz bear dala tercierea”.⁹⁵

Ay! Ala⁹⁶ gacharen guztiz fortiça!⁹⁷

Ala biciaren bici bedarra!⁹⁸

Bençu⁹⁹ munduac ene deadarra!

⁸⁸ *neguian berba*: ‘berba egin nuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

⁸⁹ *prencipal*: Cf. 3. bertso-lerroko oharra.

⁹⁰ *Deo graciaz*: Latinezko *Deo gratias* ‘Jainkoari eskerrak’.

⁹¹ *açota çatez*: ‘azotatua izan zaitez’ edo ‘azota ezazu zure burua’; bietara uler daitekeela uste dugu. Lehenengo kasuan, egitura pasiboa litzateke, aditza irangangaitz bilakatuz erdietsia; gisa berekoa da Etxepareren beste hau: *Yzterbegui duyen oro nitan vedi gatziga* (Etxp. XIII, 16). Bigarren kasuan, egitura bihurkaria litzateke, honetan ere aditza irangangaitz bilakatuz erdietsia.

⁹² *regalón*: Cf. *DAut*, s.v.: “Acomodado, delicado, u no acostumbrado al trabajo o fatiga”.

⁹³ *barca çaquezt*: ‘barka zakizkit, barka nazazu’; *barkatu* aditza, laguntzaile irangangaitzarekin; cf. *çaquezquedala* (A16: 87). *Barkatu* aldaeraren adibide bakarra da eskuizkribuan; gainerako guztietan *parkatu* agertzen da, eta NOR-NORI-NORK erregimena du.

⁹⁴ *Cabuan*: ‘azkenean, azken buruan’.

⁹⁵ *cercera bercerea*, / *nebeaz bear dala tercierea*: Badirudi hitz-jokoa dela, fraile bisitariaren azken txostena zentzurik gabekoa dela adierazteko. Bigarren zatiko hitzak (*nebeaz bear dala tercierea*) ezagunak diren arren, ez dakigu hitz-joko zentzugabea sartzan diren ala testuaren edukiarekin lotura duten.

⁹⁶ *Ala*: Bertso-lerro honetan eta hurrengoan harridurazko partikula da; cf. *OEH*, s.v. 4 *ala* (4. adiera).

⁹⁷ *fortiça*: ‘bortitza, izugarria’; *OEH*ren arabera Gerriko dateke aldaera honen lehen agerraldia. Orain arte G eta GN-n zegoen dokumentaturik, eta ekialderago ere bai. Lazarragaren eskuizkribuan sei aldiz dago (A14: 18, A16: 81, A24: 153, A28: 50, B15: 97, B16: 9).

⁹⁸ *bedarra*: ‘meharra, latza, gogorra’; cf. *OEH*, s.v. *mehar*: “*bedar* (V; Añ, H (V)), *berar* (V), *ArOñ* (*bedar*), [...] Etxba *Eib* (*bedar*); [...] hay *bedar* en los vizcaínos Añibarro, Astarloa, Uriarte, Arrese Beitia y D. Agirre. [...] I. Estricto, rígido; limitado”.

⁹⁹ *Bençu*: ‘entzun beza’; *entzun* aditzaren jusibo trinkoa.

EL AUTOR¹⁰⁰

Ona bada, señoras,¹⁰¹ claram[en]te 100

nun relatadu dan çuen bicia,
ceina dan çuençat guztiz gacia.¹⁰²

Bada ceurc¹⁰³ bacenduan escojidu

ceureçat orrelaco bicicea,
curaçat ar eçaçu sufricea. 105

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1180v Testu nagusiaren eskuinean (B14 poemaren azpian) idatzi dira ondoko bertso-lerroak: 10-12, 19-21, 16-18 eta 22-24 (hurrenkera horretan). Horien azpian, beste tinta batez, ondokoak idatzi dira gero: 1-9 eta 13-15. Azkenik, ezkerreko aldean, testu nagusiaren eta B13 poemaren azpian, 25-30 bertso-lerroak idatzi dira. **10** çardenoc] ondoren *be* tatxatuta. **15** belaurico] aurrean *çerren* eta letra irakurtezin bat edo bi tatxatuta. || linda] *-a* ez da ondo ikusten, papera higiturik dagoelako. **18** ce ni ona-ona] *ce* lerroartean; lerroan *be betorr* tatxatuta; ondoren, *ni* lerroartean eta lerroan *ona ona*. **20** euroen] aurrean *çu* tatxatuta. **21** esque] hitz-amaierako *-e i* baten gainean idatzita bide dago. **23** enamoraduac] aurrean *amo-* tatxatuta. **26** dardo] aurrean letra batzuk tatxatuta. **1181r** 31-33 bertso-lerroak orrialdearen barren-barrenean idatzi dira, ezkerraldean (1180v orrialdetik ahalik eta hurbilen), testu nagusiaren azpian. **31** eztaocela] esk. *eztaocelea*. **33** diot] esk. *dioc*. **1181v** 34-54 bertso-lerroak testu nagusiaren eskuinean idatzi dira, behetik gora (orrialde-barrenetik hasita); 55-57 bertso-lerroak, berriz, orrialdearen barren-barrenean, testu nagusiaren azpian; 58-63 bertso-lerroak, azkenik, testu nagusiaren eskuinean. **37** Jaiorean] aurrean *E-*, hurrengo ahapaldiaren hasierari legokiokeena. **52** ditudala] lerroartean; lerroan *joatala* tatxatuta. **56** carcel] esk. *carçela*, azken *-a* tatxatuta. **57** ay ay] aurrean zerbait dago ezabatuta (*ais-* edo). **58** jai] *-i-* zirriborratuta, agian azpian beste letra bat idatzita zegoelako. **63** bertati] esk. *betrti* edo *betati*. **1182v** 64-66 bertso-lerroak orrialdearen barren-barrenean idatzi dira, ezkerraldean (1181v orrialdetik ahalik eta hurbilen), testu nagusiaren azpian. 67-75 bertso-lerroak goitik behera idatzi dira, testu nagusiaren ezker aldeko zuriunean, ahapaldika, beste tinta

¹⁰⁰ *El autor*: XVI-XVII. mendeetako poesian ohikoa da halako ahapaldiak sartzea, *El autor* epigrafearekin.

¹⁰¹ *señoras*: Ohar bedi bokatiboa gaztelaniaz dagoela.

¹⁰² *gacia*: ‘garratza’; cf. *OEH*, s.v. *gazi*: “*Berba orren berba gazia*. TAV 3.1.8 (cf. El comentario de Garibay “salado se ha de entender aquí por salado desabridamente”)).”

¹⁰³ *ceurc*: ‘zeuk’, izenordainaren forma zaharrean.

batez. **64** Amore] *-e* letraren azpian beste letra bat (agian *-i*). || dulcearen] *-ren* lerroartean; lerroan letra batzuk tatxatuta (ziur aski *cei*, hurrengo lerroaren hasiera). **66** irudicen] lerroartean; lerroan *eguin j* tatxatuta. **1182v** 76-93 bertso-lerroak testu nagusiaren eskuineko zuriunean idatzi dira, goitik behera, ahapaldiak binaka ezarrita. **77** arturica] aurrean *daca* tatxatuta, hurrengo lerroko *dacarrela* idazten hasi baitzen. **1185v** 94-105 bertso-lerroak testu nagusiaren eskuineko zuriunean idatzi dira, goitik behera. **95** conclusioz] lerroartean; lerroan *paperchobat* tatxatuta. **99** ene] lerroartean; lerroan *gure* tatxatuta. **100** señoras] esk. *senoras*.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B15 – Monesterio santu devotoa...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago